

# Plaza > Bizia



## Bioteknologia kontraesanak

Bioteknologiaren eta gizartearen arteko harreman «zaila» landu du Leire Escajedo EHUko irakasleak

Pantxike Agirre Donostia

Bioteknologia modernoak hainbat arlotan aukerak ugaritu dituen arren, gatazka arrazoi da, osasunean eta ingurumenean izan dezakeen eraginagatik. Harreman zail horretan legeek hartu duten lekua aztertu du Leire Escajedo EHUko Zuzenbide doktoreak. «Arazo sozialei erantzuteko egokiak izan dira, baina bioteknologiaren kalterako», laburtu du bere ikuspegia Escajedok, Europako Batasunak genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) inguruan onartu dituen zuzentarauak aipatuta.

EBk 2004. urtean ireki zien atea GEOei, 1998an ezarritako luzapena amaituta, eta egun hainbat betekizun ezartzen ditu hazi horiek baimendu ahal izateko: ingurumenean eta osasunean izan dezaketen arriskuen ebaluazioa egitea eta GEO bitartez ekoiztitziko landare eta pentsuak etiketa egokiekkin identifikatzea.

Zuzentarau horien inguruan gogoeta egin behar dela uste du Escajedok, «bitarteko konponbideak direlako». Europako estatuak arautegi horretara egokitzaren diren arren, nor bere legea egin behar du indarrean jartzeko, eta horrek ez du bioteknologiaren garapena lagundu, Escajedok dioenez. «Gurea laborantza transgenikorik gabeko gune aldarrikatu du Eusko Jaurlari-tzak, baina laborategietan badaude; nire lankideak transgenikoekin ikertzen ari dira. Neka-

zaritza mota batzuentzat ez da ona izango, baina txarra denik ere ezin da esan».

### Saritutako lana

*Bioteknologiaren aurrerapen osasungarria eta jasangarria* liburua kaleratu du Leire Escajedok, Elhuyarren eskutik. Nazioarteko Bioetika Elkarteak eta Asturiasko Legebiltzarrak 2006. urtean saritutako lana da; aurrez ingelesez eta gaztelaniaz argitaratua zuen. «Genetikoki eraldatuko organismoak osasunaren eta elikaduraren onerako izan daitezkeela esaten da alde batetik, eta, bestetik, berriz, teknologia arriskutsua dela eta kalteak ekar ditzakeela. Kontraesan horretan jarri nuen arreta, eta horren arrazoiak bilatzeko ahalegina da liburu hau». Escajedok uste du inkoherentzia handiak azaleratzen direla bioteknologiaren inguruan, eta gauzak sinplifikatzeko gehiegizko joera dagoela. «Bioteknologiarekin injustu izatera garamatza horrek, eta gizartearen uste okerrak zabalzera. Monsanto eta transgenikoak, adibidez, ez dira gauza bera, enpresa baten errua dena ezin zaio teknologiari leporatu».

Horregatik, informazioa ematea eta gogoetarako atea zabaltzea direla bere helburua azaldu zuen. Zer-nolako auziak sortu diren (etiko-sozial eta juridikoak) eta horien aurrean hainbat herrialdetan onartu diren legeak aztertu ditu Escajedok; munduko erakundeek hartu duten jarrera; eta Europako Batasunak 1998-2004 eperako onartu zuen luzamenduak izan dituen ondorioak. Dena den, gogoeta hori egitean, bioteknologiaren garapenean eta GEOen bidez ekoiztitziko landare eta pentsuek eman beharreko etiketatuan



Leire Escajedo bioteknologiak sortzen dituen gatazken inguruan aritu zen atzo, Donostian. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

jarri du indarra. «Zalantzan jartzan da kontsumitzaileak behar bezainbat gaitu ote diren mezu horren zentzua ulertzeko; batzuek arrisku handiagoa ikusten dute 'genetikoki eraldatutako soja darama' etiketan, tabako paketeetako 'erretzeak heriotza geldoa eta mingarria eragin dezake' etiketan baino. Horregatik komeni da planteatzea agintariak esku hartu behar ote duten kontsumitzaileak gaitzeko», azaldu du liburuaren amaieran.

### Laboreak, botikak eta elikagaiak ekoizteko mikroorganismoak

➔ Artoa eta soja dira nagusi munduan landatzen diren labore transgenikoen artean; soja Amerikako herrialdeetan, eta artoa Europakoetan. AEBek landatzen dute hektarea gehien: 49,8 milioi hektarea soja, arto, kotoi, arbi, kuia eta papaia. Atzetik du Argentina: 17,1. EBk Syngenta multinazional suitzarraren Bt 11 artoa merkaturatzeari oniritzia eman zionean amaitu zen European transgenikoen gaineko luzapena. Espainiak 0,1 milioi hektarea arto landatzen du, eta hortik behera Frantziak. Genetikoki eraldatutako mikroorganismoen erabilera lehenagokoa da farmazia industrian eta elikagaien ekoizpenean; ogia eta garagardoa egiteko legamiak eta ardogintzako legamiak dira aipagarrienak.